

Joxe Mari Ordoki Almandoz

*Arantza,
Nafarroa
(1923)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzan sortu zen,
Aranibarren. Guraso biak
Arantzakoak zituen.

Zintak

ARN-008

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-04
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-009

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-04
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Mendira lanera, ikazkin

- **Erref:** ARN-008/001
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>15 urtetarako joan zen Joxe Mari mendira lanera. Arantzako mendi batean izan zen lehenbiziko. Egurra xehetu, garraiatu, ikatza egin, bildu, zakuak bete... Ikaztegi plaza nola prestatzen zuten azaltzen du. Pagoarekin egiten zuten ikatza. Borda batean egiten zuten lo, kamañetan. Jateko baba zaharra, ogia eta ardoa. Kamañak egur eta iratzez egiten zituzten. Neguan manta gehiago ipini eta listo. Lo gutxi egiten zuten txondorrek zaindu behar baizituzten gauez ere. Lau lagun baino ez zeuden. Ikatza berako fundizionerako izaten zen. Etxerako ez zuten gordetzen.</p>

2. Eugiko mendietara lanera

- **Erref:** ARN-008/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:07:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eugi inguruko beste mendi batera joan zen gero lanera. Hango lana garbiagoa zen ez baitziren ikatzarekin ibiltzen. Arpanarekin eta aizkorarekin ibiltzen ziren egurra botatzen. Gero kamioietan kargatzen. Hasieran ez zuten garabiarik eta eskuz kargatzen zuten kamioia, 5-6 lagun artean. Bikoteka aritzen ziren lanean. 2 lagun arbola botatzen eta beste 2 kimatzen eta egurra leuntzen.</p>

3. Nolakoak ziren txabolak

- **Erref:** ARN-008/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Txapaz eginak izaten ziren. 20-30 lagun sartzen ziren. Huescan ere aritu zen eta han 99 lagun sartzen ziren. Aldeetan 2 hesi eta gainera iratzera izaten zuten. Alde bakoitzean , kamañak. “A rantxo” jaten zuten, denak sozio, eltze beretik. Lanean ari zirelarik, erauntsia bazen jateko guztia urez betetzen zitzairen. Batzuetan ardo trago bat eman eta lanean segi.</p>

4. Otorduak mendian

- **Erref:** ARN-008/006
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gosaltzeko, babak, azkaltzeko babak, afaltzeko babak. Ondotik, baba saldarekin eginiko ogi zopa. Litro t'erdi ardo izaten zuten razioa. Baina Joxe Marik ardoa libre izaten zuen. Inoiz ez zuen zegokiona edaten. Bi lagun izaten zituen txabolan esperoan Joxe Mariren ardoa edateko.</p>

5. Igandetan ere lan!

- **Erref:** ARN-008/008
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:11:48. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Ordu biak arte egiten zuten lana. Txabolara joan, bazkaldu, siesta pixka bat egin eta arropak garbitzera joan errekarara, bizarra egin... Merendu berezia egiten zuten, haien kontura. Makailua batzuetan, haragi puskaren bat agian. Bi lagun ziren igande arratsaldetan sozio. Haragia eskatzen zuten eta igandean merendatu, afaldu eta asteleheneko afarirako ere gordetzen zuten. Haien prestatzen zuten merendu hori. Makailua eta haragia, egurra garraiatzen zuten kamioi gidariei eskatzen zieten eramateko.</p>

6. 17 ordu lan

- **Erref:** ARN-008/009
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:13:52. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Oihanean 17 ordu lan egin izan ditu segidan Joxe Marik. Egunsentiarekin txabolatik atera eta iluntzearekin sartu. Eritasunen bat bazuten ahal bezala sendatzen zuten. Nagusiak eritua kotxearekin jaisten zuen herrira. Ez zuten

segurorik orduan (30 lagunendako 5 seguru, eta horiek denentzako erabili).</p></p>

7. Iratin zenbat lagun lanean

- **Erref:** ARN-008/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:15:27. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Mendian batzuk besteengandik urrun lan egiten zuten. Ez da erreza zenbat lagun aritzen ziren lanean esaten. Lanpostu ezberdinak azaltzen ditu: Rantxero bat bazkaria prestatzen zuena, 2 pintxe jatekoa mendira igotzen zietena. Arbola botatzen 14 pareja izaten ziren, bakoitzak bere sailean.</p>

8. Arbola nora bota kalkulatzeko

- **Erref:** ARN-008/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:19:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Lehenbizi arbolari begiratu behar zitzaion, nora eroriko ote zen errezago. Batzuk lurrera erotzen ziren besteak, zintzilik geratu. Hozka zuhaitza bota nahi den aldera egin beharra zaio. Arbola bota eta adarrak kendu, kimatu, 2 metro luzeko ataletan moztu eta kamioietan kargatzen zituzten.</p>

9. Kablea Eugin

- **Erref:** ARN-008/013
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:04. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eugin kablea erabiltzen zuten egurra garraiatzeko. 14Mila kilo egur garraiatzen ahal zuen kable horrek. 2,5 kmko luzeera zuen kableak. Arbolak plantxa batzuen gainean kokatzen ziren eta kateekin lotu eta horrela garraiatzen zuten egurra.</p>

10. Arantzan mutil gehienak oihanean

- **Erref:** ARN-008/015
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:20:59. **Bukatu:** 00:22:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bizitza latza izan zutela dio Joxe Marik. Arantza mutilik gabe geratu zen, denak baitziren mendian lanean. 11 hilabete pasatzen zituzten etxetik kanpo lanean, 10.000 pezetaren truke. Jendeak uste zuen hori diru asko zela, baina

hori irabazteko egin beharreko lana, askoz handiagoa. Orain motozerrarekin batek egiten du lehen 10 gizonek baino lan gehiago.</p>

11. Lehengo neurriak

- **Erref:** ARN-008/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:23:28. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Laka kutxa txiki bat zen, errobo erdia pixka bat handiagoa, eta erroboa. Erroboak 22 kilo inguru zituen. Horiekin ilarra, artoa, baba, aiorba, gaztaina... neurtzen zen. Sagarrekin adibidez ez zen erabiltzen.</p>

12. Azienda neurtzeko soka

- **Erref:** ARN-008/019
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:25:56. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Azienda neurtzeko soka bat izaten zuten. Metro t'erdi edo pixka bat gehiago izaten zuen. Sokak marka batzuk zituen. Horrekin ederki kalkulatzeko zuten aziendaren pisua, bi biko edo kilo bateko okerra izaten zuten asko jota.</p>

13. Erleak etxean

- **Erref:** ARN-008/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Beti ezagutu dituzte erleak etxean. Erle mota ezberdinak daude: beltzak, gorriak... Gorriak gorri-gorriak izaten ziren eta besteak nabarragoak. Gorriak gaiztoak izaten ziren eta ausiki egiten zuten. Etxean beltzetarik zituzten. Erle mota ezberdinak izaten dira, erregina, langilea, alferra... langileek erle alferrak hil egiten zituzten. Baziren 4-5 erregina. Hura beste kaja batera pasa eta gainontzeko erleak atzetik joaten zitzaikion.</p>

14. Zenbat erle etxean

- **Erref:** ARN-008/022
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:30:11. **Bukatu:** 00:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>17-18 eultze zituzten garai batean, Orain 2rekin aski. Neguan zainketa berezia behar zuten, jatekoa batzuetan... azukrea.</p>

15. Lehenagoko eultzeak

- **Erref:** ARN-008/024
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:32:08. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Egur bat lehertu eta adarrak ateratzen zitzaizkion. Hobe izate ziren adar bakoitiak. Ondotik egur hori nola estaltzen zuten azaltzen du, ahien hostoekin. Eultzen tamainak.</p>

16. Eultza bukatu eta erlea sartu

- **Erref:** ARN-008/026
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:36:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eultza gorotzarekin eta buztinarekin bustitzen zen kanpotik eta barrutik, ixteko. Ondotik barruan kolonia jarri eta erlea sartu egiten zen.</p>

17. Erlearen umea mugitzeko txistu egiten zen

- **Erref:** ARN-008/028
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:38:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Erleak umea eultzatik atera eta leiho batean gelditzen bazen, handik bidali behar izaten zen. Askotan zuhaitzen arbolatan jartzen ziren. 4 bat egun leihoan izan eta gero aldegiten zuten. Lehengo zaharrek txistuka biltzen zituzten erleak.</p>

18. Erle bila mendira

- **Erref:** ARN-008/029
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:38:01. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Aitak afizio handia zuen erle bila mendira joatekoa. Segituan atzematen zion norabidea erleari. Ura edate ari zirelarik errezago harrapatzen ziren. Erlauntza bat harrapatuz gero, horri seinalea egiten zitzaion, beste inork har ez zezan. Urrian biltzen zuten ezta, ilbeheran, pikortu ez zedin.</p>

19. Ilberria eta ilbehera

- **Erref:** ARN-008/030
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:43:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Ilberriak eta Ilbeherak garrantzia handia dute. Fagoa ilbeheran botaz gero ez du sua ongi egiten. Haritza berdin. Apar zuri bat ateratzen zaio. Gehienak beraz, ilberrin bota behar dira. Baratzetako ere begiratzeko zitzaien ilargiari. Ilarrak doble ematen zuen ilbeheran landatuta, ilberrin baino. Ereiteko ere ilbehera. Zerria hiltzeko ilbehera. Ilea ilberrin moztuta agudoago hazten da.</p>

20. Onddoak eta ilargia

- **Erref:** ARN-008/032
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:43:57. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Ilbeheran euria egiten badu, ilberrin ateratzen da onddoa. Onddoak euria behar du eta zortzi bat egun ateratzeko. Hezetasuna eta beroa behar du. Gaztainetan, haritzetan, pinutan... ateratzen dira onddoak., baina gehiena pagoetan eta haritz amerikarretan. Arbolik ez den lekuen gutxi.</p>

21. Onddoen inguruko sinesmenak

- **Erref:** ARN-008/034
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:45:51. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Onddoak behin ikusiz gero gehiago hazten ez direla esaten duenik bada. Joxe marik ez du sinisten, ebark ikusi ditu gehiago hazten. Onddoak bapatean ateratzen direla ere esaten dute batzuek, baina Joxemarik ezetz dio.</p>

22. Onddoaren ipurdia lurrean utzi behar da

- **Erref:** ARN-008/036
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:46:32. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Onddoaren ipurdia lurrean utzi behar da heldu den urtean berriz han onddoa jaio dadin. Beti egiten dute horrela. Inori ez zaio onddoa non topatu den esaten.</p>

23. Erlea harrapatzeko zer esan behar da? Etxeko norbait hiltzen zenean abisua ematen zieten

- **Erref:** ARN-008/038
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:48:18. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Erlea eultze berri batean sartzeko, “bentan, bentan, Maria ederra” estaen zieten. Etxeko nobait hiltzen zenean ere abisatu egiten zitzairen urteko argizaria egin zezaten. Erleei zuketan egiten zieten. Zakurrei ere bai.</p>

24. Erlearen ausikirako erremedioa

- **Erref:** ARN-008/040
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Lurra idorra hartu eta horrekin fuerte igurtzen zuten, ziztadaren tokian. Masma belarra ere erabiltzen zuten, horrek ez zion pikorrari hazten uzten.</p>

25. Erleak ezin ziren saldu

- **Erref:** ARN-008/041
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Erleak ezin ziren saldu, zerbait trukean eman bai, baina saldu ez.</p>

26. Eztia nola egiten zen

- **Erref:** ARN-008/043
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:52:47. **Bukatu:** 00:54:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Lehenbizi erleak hlitzen zituzten botikarekin. Gero erlauntza hartu eta etxera eramaten zuten. 2 makilekin eta trapu baten laguntzaz fuerte estutzen zuten erlauntza. Eztia trapuan behera jaisten zen. Geratzen zen erlauntza estuari “berexka” deitzen zioten. Horrekin mostilloa egiten zuten zenbaitetan. Etxean ez zuten gordetzen, besteren bati eman edo bota.</p>

27. Argizariarekin zer egiten zen

- **Erref:** ARN-008/045
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:55:16. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Argizariarekin kandelak egiten zituzten. Argizaria egurrezko lurrari lustrea

emateko ere balio zuen. Erremedioak egiteko ere bai. Etxean ez zuten kandelarik egiten, eta ez daki Arantzan baten batek egiten ote zituen ere.</p>

28. Aranibar etxea

- **Erref:** ARN-008/047
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:57:29. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Arantzako lehenengo etxea izan omen zen.</p>

29. 7 urterekin morroi. Eskolara behin joan zen

- **Erref:** ARN-008/049
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:58:34. **Bukatu:** 01:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Biaje bakarra egin zuen eskolara. 100 lagun zituen irakasleak eskolan. Zekienari irakatsi eta ez zeniena bazter uzten zuen. Eskolan ez zuen deus gutxi egin. 7 urtetarako morroi atera zen etxetik. Aita eta ama ezagutzen ez zituela ere geratu zen. Behiak jeizten zituen eta esnea letxeroari eraman. Morroi bizi zen etxe hartan, familiako beste bat bezala bizi zen.</p>

30. Segarekin lanean

- **Erref:** ARN-009/001
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:00:03. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Auritzen, Auritz-berrin eta Arantzazun aritu zen 7 urtez segalari gisa. Hilabete, hilabete t'ardi ematen zuten han lanean. 2 lagun aritzen ziren segan. Biak arantzarrak. 6:30etan jaiki, gosaldtu, sega hartu eta martxa. Goiza segan pasa ondotik, bazkalostean belarrari buelta eman eta belarra etxera sartzen zuten. Sokekin zama handiak egin eta hola garraiatzen zuten belarra etxeraino, behiekin, karroan. Arantzazun belarra kabletik jaisten zuten. Nagusi onak tokatu izan zaizkio beti.

31. Eguraldia iragartzeko zeri begiratu

- **Erref:** ARN-009/003
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:07:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haizeari begiratu behar zaio. Haizea zein aldera doan, eguraldi bat edo beste

eginen du. Haize hegoarekin euri gutxi egiten du. Eguraldiaren aldaketa gerrian nabaritzen du Joxe Marik. Haziendak etxera zihoazen denbora txarra egin behar zuenean, eta mendiruntz denbora ona eginen zuenean.

32. Okilak kantatzen badu, euria. Sugea ateratzen bada, eguraldi ona

- **Erref:** ARN-009/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzan bazen gizon bat zioena okila beltzak kantatzen bazuen euria segurua zela. Sugeak denbora onarekin baino ez dira ateratzen. Zizareak berriz, euri garaiean ateratzen omen dira. Armiamak ere euriarekin ateratzen omen dira. Inurri saldo aunitz ikusiz gero urte idorra eginen duen seinale.

33. Katua etxean laketzeko

- **Erref:** ARN-009/007
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Kanpoko katu bat etxera ekarri eta bertan gera zedin laratzeari 3 buelta eman behar zitzaizkion.

34. Apaizen bedeinkazioa arrak bidaltzeko

- **Erref:** ARN-009/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:12:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

San Juanetan bedeinkatzen zituzten apaizek lurrak. Etxez-etxe pasatzen zen apaiza lurrak bedeinkatzen.

35. San Juan eguneko errana

- **Erref:** ARN-009/011
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

“San Juan xar, San Juan bien, sarna fuera, gaixtoa kanpora, ona barrenera”. San Juan bezperan esaten zuten hori, sua eginda, 3 aldiz salto egin baino lehen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com